



PARTE-HARTZEKO OINARRIAK

BALDINTZA OROKORRAK

- 12 eta 18 urte bitarteko gazte erandioztarrek izango dute parte hartzeko aukera.
- Bi kategoriatan banatuko ditugu parte-hartzaileak adinaren arabera:
 - Junior kategoria: 12-16 urte bitartekoentzat (DBHko ikasleak)
 - Senior kategoria: 17-18 urte bitartekoentzat (Batxilergo edo Lanbide heziketako ikasleak)
- Banaka edo taldean parte hartu daiteke. Talde bakoitzean, gehienez ere, 4 kide izango dira.
- Parte hartzeko ezinbestekoa izango da BideoLiburu lehiaketako webgunean izena ematea, bertan argitaratutako inprimaki bat osatuz. Inprimakian bertan jarriko da bideoaren youtubeko edo driveko esteka.
- Ezinbestekoa izango da adin txikikoen kasuan gurasoek lehiaketan parte-hartzea baimentzen dutela egiaztatzen duen egiaztagiria entregatzea (eredua webgunean izango da eskuragarri eta email bidez bookbideoerandio@gmail.com helbidera helarazteko aukera izango da).
- Izen ematea **apirilaren 1a eta maiatzaren 9a bitartean** izango da.
- Bideoak **entregatzeko azken eguna maiatzaren 9a** izango da.

EDUKIA

- Bideoan ezinbestean bete beharreko baldintzak:
 - Euskara hutsean izatea
 - Gutxienez 1,5 minutuko iraupena izatea eta gehienez, 2 minutukoa
 - Lehiaketan proposatutako liburu zerrendako liburu bati egingo diote erreferentzia
 - Liburuari buruzko oinarritzko informazioa agertzea: azala, egilea, itzultzailea, ilustratzailea, etabar. (bideoaren hasieran edo amaieran)
 - Bideoa MP4 edo AVI formatuan egotea
 - Kredituak agertzea (bideoaren bukaeran)
 - ✓ Parte hartu duten guztien izen-abizenak
 - ✓ Erabilitako baliabideen iturrien aipamenak
 - ✓ Eskerrak (aukerakoa)
- Bideoan erabilitako irudi, soinu eta bestelako baliabideek ez dute horien egileen jabego eskubiderik urratuko. Lizentzia gabeak, egileak berak grabatutakoak edo *creative commons* lizentziadunak izan beharko dute.
- Jasotako lanetan iraingarri gerta litekeen edozein eduki izango balitz (antolaketak hala baloratuta), lana zuzenean lehiaketatik kanpo geldituko da.

LANEN BALORAZIOA

Epaimahaiak honakoak izango ditu kontutan:

- Iraupen egokia
- Sinopsi edo laburpen tentagarria egitea
- Oinarrietan zehaztutako gutxieneko edukiak sartzea
- Testuaren, irudien eta audioaren egokitasuna
- Originaltasuna eta ulergarritasuna

Epaimahaia 2 kidek osatuko dute; alde batetik, Iñigo Astiz kazetaria izango dugu epaile lanetan, edukia eta hizkuntza baloratzeko eta bestetik ikus-entzunezkoetan aritua den kide bat, bideo liburuetan landutako teknika baloratzeko.

SARIAK

3 sari egongo dira kategoría bakoitzeko:

- Saria: 150€ (erosketa bonoa)
- 2. Saria: 100€ (erosketa bonoa)
- 3. Saria: 50€ (erosketa bonoa)

Sarietan banatutako erosketa bonoak **Erandioko 3 liburudendatan** erabili ahalko dira saria **jaso eta ondorengo 30 egunetan**. Bono bakoitza **denda bakarrean erabili ahalko da eta erosketa bakarrean**.

Hauek parte hartuko duten liburudendak:

- Alfil (Mezo kalea, 11, 48950 Erandio): <https://www.alfil.be>
- Peman (Karl Marx kalea, 9, 48950 Erandio): <https://peman.amilibro.com>
- Elorduy (obieta kalea, 25, 48950 Alzaga, Erandio):
<https://libreriaelorduy.negocio.site>

OHARRA: sariak hutsik geratu daitezke epaimahaiaren ustez jasotako lanek eskatutako maila eskaintzen ez badute.

Antolatzaileak



Laguntzailea

